



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EAE-KO emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren (2014) ebaluazioa

Jarraipen memoria

2014

AURKIBIDEA

0.	AURKEZPENA	6
I. ZATIA: VI. BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPENA. LABURPENA (2014).....	7	
1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO KONTSIDERAZIO BATZUK	8
2.	EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUNAK	10
2.1.	Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurrien emaitzak	10
2.1.1.	Berdintasun-politiken plangintza EAEn	10
2.1.2.	Berdintasunerako administrazio-unitateak eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak	12
2.1.3.	Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegiaren txertatze-maila EAEko aurrekontuetan.....	15
2.1.4.	Euskal administrazioetan arauak generoaren arabera duten eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioak txertatzea.....	16
2.1.5.	Berdintasun-politiketan izandako parte-hartzea	17
2.1.6.	Berdintasun-arloko prestakuntza administrazio publikoetan.....	18
2.1.7.	Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan	19
2.1.8.	Beste berdintasun-helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren eremuan.....	20
2.2.	Jarraipenaren emaitzak esku-hartzearen ardatzetan	23
2.2.1.	Esku-hartzeen helburu politikoak	23
2.2.2.	Gaiak	24
2.2.3.	Esku-hartze mota.....	25
2.2.3.1.	Prestakuntza	27
2.2.3.2.	Sentsibilizazioa	29
2.2.3.3.	Informazioa, jakintza eta azterketa.....	30
2.2.4.	Zerbitzu eta ekipamenduen sorkuntza eta kudeaketa	31
2.2.5.	Berdintasun-ekintzen onuradunak izan diren entitate eta pertsonenganako hurbilketa	32
2.2.5.1.	Ekintzen onuradunak	32
2.2.6.	Egokitze-neurrien erabilera ekintzetan	34
2.2.7.	Esku-hartzeen kostua	34
II. ZATIA:	EUSKAL BOTERE PUBLIKOEK BERDINTASUNAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIO XEHATUA. 2014.....	36

Taulen aurkibidea

1 taula:	EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2014.....	8
1. taula:	Parte hartu duten eta indarreko berdintasun-planak edo berdintasun-programak dituzten erakundeen kopurua. 2014	37
2. taula:	Barneko berdintasun-planak dituzten erakundeen kopurua. 2014.....	38
3. taula:	Barneko berdintasun-planik ez duten entitateen lan-antolamenduan txertatutako neurriak. 2014	38
4. taula:	Organoak edo unitateak dituzten erakundeen kopurua. 2014	39
5. taula:	Berdintasuna bultzatzen diharduen enpleguaren ezaugarriak. 2014.....	39
6. taula:	Berdintasuna bultzatzeko funtzioak betetzen dituzten teknikariak. 2014.....	39
7. taula:	Arduraldi eskusiboko langileak, lanaldi motaren arabera. 2014.....	39
8. taula:	Berdintasun-unitateen jarduera batzuen ezaugarriak. 2014	40
9. taula:	Berdintasunaz bestelako eremuetako koordinazio-egituretan izandako parte-hartzea. 2014	41
10. taula:	Berdintasunaren eremuko erakundeen arteko koordinazio-egituretan izandako parte-hartzea. 2014	41
11. taula:	Berdintasunaren eremuko sailen arteko eta sailen barneko koordinazio-egiturak. Bilera eta erakunde kopurua. 2014.....	41
12. taula:	Genero-ikuspegia azterlan eta estatistika sistematiko edo puntualetan txertatzea. 2014	42
13. taula:	Erakundeek sustatutako barne-prestakuntza. 2014	43
14. taula:	Sailek berdintasunaren eremuan sustatutako barne-prestakuntza. 2014.....	43
15. taula:	Berdintasunaren eremuko barne-prestakuntzan izandako parte-hartzea, kategorien arabera banakatua. 2014	43
16. taula:	Edozein motatako prestakuntzan eta espezifikoa izandako parte-hartzea (barnekoa eta IVAPEkoa salbuetsita). 2014	44
17. taula:	Berdintasunean izandako parte-hartzearen banakapena (aurreko taula). 2014.....	44
18. taula:	IVAPEk sustatutako prestakuntza orokorra. 2014.....	44
19. taula:	IVAPEk berdintasunean sustatutako prestakuntza espezifikoa. 2014	44
20. taula:	Hautaketa-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2014.....	45
21. taula:	Genero-ikuspegia komunikazioan txertatzea. 2014.....	45
22. taula:	Eraginari buruzko ebaluazioa jasotzen duten arauen kopurua eta ezaugarriak. 2014	46
23. taula:	Arauetan berdintasuna lortzeko txertatutako neurri motak. 2014	46
24. taula:	Berdintasunerako aurrekontu orokorra eta espezifikoa (eurotan). 2014.....	47
25. taula:	Berdintasunerako betearazitako aurrekontuen banakapena (eurotan). 2014.....	47
26. taula:	Genero-ikuspegia plan sektorial eta zeharkakoetan txertatzea. 2014	48
27. taula:	Berdintasun-irizpideak kontratazioetan. 2014.....	49
28. taula:	Berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2014	49
29. taula:	Berdintasun-irizpideak diru-laguntzetan eta laguntzetan. 2014	49
30. taula:	Berdintasun-irizpideak beketan. 2014	50
31. taula:	Kontratazio-prozesuetan irizpideak aplikatzeko arauak, jarraibideak eta abar onartzea. 2014	50
32. taula:	Enplegu publikoan sartzeko eta bertan sustatzeko deitutako epaimahaiak eta ordezkaritza orekatua. 2014	51
33. taula:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan, sariak emateko epaimahaietan eta parte-hartze kontseiluetan. 2014	51
34. taula:	Herritarren parte-hartzea eta berdintasuna. 2014.....	52
35. taula:	Identifikatutako jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	53
36. taula:	Aurreko urtekoen jarraipena diren jardunen kopurua eta ehunekoa, erakunde motaren arabera. 2014	53
37. taula:	Helburu politiko jakin bat lortzeko jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	53
38. taula:	Gai jakin bat garatzeko jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014.....	54

39. taula:	Esku-hartze jakin gisa formulatzen diren jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	54
40. taula:	Herritarren prestakuntzarako jardueretan parte hartu dutenen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	54
41. taula:	Prestakuntza-helburu jakin batzuetara bideratutako jardunen kopurua (herritarrentzako prestakuntza). 2014.....	55
42. taula:	Administrazioetako zerbitzu publikoen prestakuntzarako jardueretan parte hartu dutenen kopurua. Orduak eta ziurtagiriak. 2014.....	55
43. taula:	Zerbitzu publikoen prestakuntzarako ekintzen kopurua, prestakuntza-helburuen eta erakunde motaren arabera. 2014	56
44. taula:	Sentsibilizazio, zabalkunde eta komunikazioko jardueretan parte hartu dutenen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	56
45. taula:	Sentsibilizazio-jardunen kopurua, tipologiaen eta erakunde motaren arabera. 2014	57
46. taula:	Jarduera jakin batzuetan oinarritutako informazio-, jakintza- eta azterketa-jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	57
47. taula:	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko ekintzen kopurua eta ezaugarriak, erakunde motaren arabera. 2014	57
48. taula:	Jardun kopurua, azken hartzailen eta erakunde motaren arabera. 2014	57
49. taula:	Espezifikoki gizonen, emakumeen eta transgenero/transsexualen zuzendutako jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	58
50. taula:	Kolektibo espezifikoetan oinarritutako jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	58
51. taula:	Emakumeen eta gizonen kasuaz bestelako berdintasun-helburuetara bideratutako jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	58
52. taula:	Kolektibo jakin batzuetara egokitzeko neurriak jasotzen dituzten jardunen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	58
53. taula:	Informatutako jardunen kostua, erakunde motaren arabera. 2014.....	59

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Parte hartu duten erakundeen eta planak dituzten erakundeen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014	11
2. grafikoa.	Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen eta berdintasunerako unitatea duten erakundeen kopurua. 2014.....	12
3. grafikoa.	EAEko berdintasun-langileak, erakundeen arabera. 2014	13
4. grafikoa.	Berdintasun-langileen guztizkoa eta prestakuntza esanguratsua dutenak, erakundeen arabera. 2014	14
5. grafikoa.	Berdintasun-langileen guztizkoa eta erabateko arduraldikoak, erakundeen arabera. 2014	14
6. grafikoa.	EAEko berdintasun-aurrekontua, erakundeen arabera (mila €-tan). 2014	15
7. grafikoa.	Aurrekontuak, banakatuta (milakoetan). 2014.....	16
8. grafikoa.	Eraginari buruzko txostenen kopurua eta berdintasun-neurriak txertatzea eragiten dutenen kopurua, erakundeen arabera. 2014	17
9. grafikoa.	Berdintasuneko espezifikoak diren eta funtzioetan edo osieran genero-ikuspegia sartu duten organo eta kontseiluen guztizkoa. 2014	17
10. grafikoa.	Euskal administrazioetan prestakuntza (orokorrean eta berdintasun-arlokoan) parte hartu	18
11. grafikoa.	Administrazio publikoetan prestakuntza orokorrean eta berdintasun-arlokoan parte hartu duten emakumeak eta gizonak. 2014.....	19
12. grafikoa.	Berdintasunean prestatu diren pertsonen banaketa, lanbide-kategorien arabera. 2014	19
13. grafikoa.	Berdintasun-irizpideen txertatze-maila kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan. 2014	20
14. grafikoa.	Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2014	21
15. grafikoa.	Berdintasun-unitateen eta berdintasun-langileen parte-hartzea beren erakundeak koordinatzeko egitura orokorretan	21

16. grafikoa.	Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua epaimahaietan eta abar. 2014	22
17. grafikoa.	EAEen egindako berdintasun-jardunen kopurua, erakundeen arabera. 2014	23
18. grafikoa.	Helburu politiko jakin bat lortzeko jardunen kopurua. 2014	24
19. grafikoa.	Gai jakin bat garatzen duten jardunen kopurua. 2014	25
20. grafikoa.	Jardun kopurua, esku-hartze motaren arabera. 2014	26
21. grafikoa.	EAEen berdintasun-arloko prestakuntza jaso duten pertsonak (herritarak), erakundeen arabera. 2014	27
22. grafikoa.	Herritarren prestakuntzarako jardunen kopurua, helburuen arabera. 2014	27
23. grafikoa.	EAEen berdintasun-arloan prestatutako zerbitzu publikoetako langileen kopurua, erakundeen arabera. 2014	28
24. grafikoa.	Zerbitzu publikoen prestakuntzarako jardunen kopurua, helburuen arabera. 2014	28
25. grafikoa.	Herritarren eta administrazioetako zerbitzu publikoen prestakuntzarako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua. 2014	29
26. grafikoa.	Berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzetan parte hartu duten pertsonak, erakunde sustatzaileen arabera. 2014	29
27. grafikoa.	Sentsibilizazio-jardunen kopurua, egiteko moduen arabera. 2014	30
28. grafikoa.	Informazio-, jakintza- eta azterketa-jardunen kopurua, erakundeen arabera. 2014	30
29. grafikoa.	Informazio-, jakintza- eta azterketa-jardunen kopurua, oinarritzko edukien arabera. 2014	31
30. grafikoa.	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jardunen kopurua, erakundeen arabera. 2014	31
31. grafikoa.	Zerbitzuak edo baliabideak sortzeko eta kudeatu edo aldatzeko jardunen kopurua. 2014	32
32. grafikoa.	Biztanle talde espezifikoetara bideratutako ekintzen kopurua, sexu-aldearen arabera. 2014	32
33. grafikoa.	Biztanle talde espezifikoetara bideratutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2014	33
34. grafikoa.	Beste desberdintasun batzuei aurre egitera bideratutako ekintzen kopurua. 2014	33
35. grafikoa.	Egokitze-neurriak txertatu dituzten ekintzen kopurua. 2014	34
36. grafikoa.	EAEen egindako jardunen kopurua, erakundeen arabera (guztizkoa eta identifikatutako kostuak izan dituztenak). 2014	35
37. grafikoa.	Informatutako jardunen guztizko kostua, erakunde motaren arabera. 2014	35
38. grafikoa.	Berdintasun-planak dituzten eta identifikatutako arloen parte-hartzearekin ezartzen dituzten udalerrri eta aldundien kopurua	37

0. AURKEZPENA

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planak euskal botere publikoek ekitaldi bakoitzean egindako jarduna aztertuko zuen ebaluazio-dokumentu bat lantzeko eskaera egin zuen, eta eskaera horri erantzuteko egin da dokumentu hau.

Jarraipen-memoria hau bi zatitan egituratu da: lehen zatian, 2014. urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak duen egoera eta arlo horretan identifikatutako aurrerapen garrantzitsuenak nabarmentzen dira, ebaluazioan parte hartu duten erakunde eta entitateek emandako informazioari jarraiki. Estatistika-eranskin gisa, informazio horren xehetasuna jaso da egindako azterketaren berri ematen duten eta azterketa horretan sakontzen duten tauletan.

Bi kasuetan, Berdintasunerako VI. Planaren egiturari jarraitu zaio. Lehenik eta behin, Gobernantzari lotutako jardunak landu dira (emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako oinarritzko betekizunak, genero-ikuspegia administrazioen funtzionamendu eta antolamenduan txertatzeko aukerari dagokionez), eta, ondoren, VI. Planaren hiru ardatzen (hots, balioen aldaketaren eta emakumeen ahalduntzearen, gizarte-erakunde baten garapenaren eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren) inguruan egindako esku-hartzea.

Jarraipen hori EAEko erakundeek informazio-aplikazio baten bidez betetako galde-sortei esker lortutako informazioan oinarrituta dago¹. Galde-sorta horiek informazio gehigarriarekin eta erakundeetan berdintasun-politikak ezartzeko ardura duten pertsonen egindako oharrekin bete ziren. Horrela, beraz, 2014ko ebaluazioan parte hartu zuten erakunde eta entitateek emandako informazioa aurkeztuko dugu (informazioa 2015ean bildu da).

¹ Prozesuaren hasieran, jarraipena sustatu eta errazteko, saio presentzialak egin ziren hiru lurraldeetan.

I. ZATIA:
BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN
JARRAIPENA. LABURPENA (2014)

1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO KONTSIDERAZIO BATZUK

Botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan lortu beharreko helburu nagusiak zehazten ditu VI. Planak. Helburu horiek hainbat tresna eta esku-hartzeren bidez garatu dituzte euskal erakundeek.

Botere publikoen jardueraren jarraipenari esker, EAEko berdintasun-politikek nolako bilakaera izan duten jakin daiteke, ez, ordea, esku-hartzeen emaitzei dagokienez, gauzatzeari dagokionez baizik. Aurreikusitakoaren arabera, politika horiek izan dituzten ondorioen ebaluazioa aldia amaitzean egingo da.

Ikuspegi horrek mugak baditu ere, oinarritzko alderdi batzuk argitzen ditu, hala nola berdintasun-politiken plangintzan egindako aurrerapena, erakundeetan berdintasun-politikak sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapena eta administrazio publikoek berdintasuna bultzatzeko bideratutako aurrekontuak.

Adierazi beharra dago, halaber, EAEko administrazio publikoen eremu guztiek hartzen dutela parte jarraipen honetan: Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta mankomunitateek. Pixkanaka, erakunde autonomoak, entitate publikoak, kapital publikoko enpresak eta berdintasunaren eremuan zeregin garrantzitsua betetzen duten erakundeak hasi dira parte hartzen, baina bide luzea geratzen da oraindik jarraipen-sisteman erabat txertatzeko.

2014. urtean, 116 erakunde edo entitatek hartu dute parte (hau da, 2013an baino 27 gehiagok). Parte hartu duten erakunde gehienak udalak dira (guztien % 62).

2 taula. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2014

Erakundeak	Kopurua
Eusko Jaurlaritzaren Sailak	9
Foru Aldundiak	3
Udalak	72
Mankomunitateak eta partzuergoak	7
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	10
Kapital publikoko enpresak	11
Beste erakunde eta entitate batzuk	4
GUZTIRA	116

Hona hemen ebaluazio honetan parte hartu duten eta dokumentuan aurkeztutako informazioa eman duten erakunde eta entitateak:

Abaltzisketako Udala
 Abanto Zierbenako Udala
 Alonsotegiko Udala
 Amezketako Udala
 Amurrioko Udala
 Aramaioko Udala
 Arantzazuko Udala
 Areatzako Udala
 Arrigorriagako Udala
 Arteagako Udala
 Astigarragako Udala
 Azkoitiko Udala
 Azpeitiko Udala
 Baliarraingo Udala
 Balmasedako Udala
 Barakaldoko Udala
 Barrikako Udala
 Beasaingo Udala
 Bediako Udala
 Berangoko Udala
 Bergarako Udala
 Bilboko Udala
 Galdakaoko Udala
 Debako Udala
 Dimako Udala
 Donostiako Udala
 Eibarko Udala
 Burgeluko Udala
 Elgoibarko Udala
 Elorrioko Udala
 Erandioko Udala
 Errenteriako Udala
 Gatikako Udala
 Gautegiz Arteagako Udala
 Gernika-Lumoko Udala
 Getxoko Udala
 Gorlizko Udala
 Hernaniko Udala
 Igorreko Udala
 Irungo Udala
 Leioako Udala
 Lekeitioko Udala
 Lemoako Udala
 Lemoizko Udala
 Lezoko Udala
 Lizartzako Udala
 Nabarnizko Udala
 Olaberriko Udala
 Ondarroako Udala
 Oñatiko Udala
 Ordiziako Udala
 Orendaingo Udala
 Orozkoko Udala
 Ortuellako Udala
 Pasaiaiko Udala
 Plentziako Udala
 Portugaleteko Udala
 Santurtziko Udala
 Sopelako Udala

Soraluzeko Udala
 Sukarrietako Udala
 Ugao-Miraballesko Udala
 Urdulizko Udala
 Urnietako Udala
 Gasteizko Udala
 Zaldibarko Udala
 Zarauzko Udala
 Zeanuriko Udala
 Zestoako Udala
 Zigoitiko Udala
 Zizurkilgo Udala
 Zumaiaiko Udala
 Arratiako Udalen Mankomunitatea
 Kanpezu-Araba Mendialdeko Kuadrilla
 Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla
 Eudel
 Haurreskolak
 Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea
 Urola Garaiko Mankomunitatea
 Herri Administrazio eta Justizia Saila
 Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
 Hezkuntza. Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
 Enplegu eta Gizarte Politika Saila
 Ogasun eta Finantza Saila
 Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
 Osasun Saila
 Segurtasun Saila
 Lehendakaritza
 Arabako Foru Aldundia
 Bizkaiko Foru Aldundia
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Basquetour
 EJE
 Euskadiko Kirol Portuak
 Euskotren
 Ihobe
 Itelazpi
 Izenpe
 Neiker-Tecnalia
 Parque Tecnológico de Alava SA
 Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, SA
 SPRI
 Uraren Euskal Agentzia
 Emakunde
 Euskal Trenbide Sarea (ETS)
 Eustat
 Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
 IVAP
 Lanbide
 Osakidetza
 Osalan
 Unibasq
 HAZI
 Arabako Batzar Nagusiak
 UPV/EHU
 Emakunderen Herritarren Defentsa Zerbitzuak²

² Emakunderen egitura organikoan txertatu aurretik egin zuen ekarpena.

2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUNAK

Arestian adierazi dugunez, ikuspegi orokor batetik garrantzitsuenak izan diren gaien laburpen bat jasotzen da kapitulu honetan, eta informazioa bi esparru handitan egituratuta dago: genero-mainstreamingaren³ egoera eta aurrerapenak euskal botere publikoetan, eta VI. Planaren ardatzetan zehaztutako eremuetan berdintasuna sustatzeko egiten dituzten esku-hartzeak.

2.1. Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurrien emaitzak

VI. planean gobernantzaren eremuan zehaztuta dauden helburuak euskal administrazio publikoen jardun orokorrean genero-ikuspegia txertatzera bideratuta daude, *emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan har daitezen, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketara zehatzak txerta daitezen politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.*

Dokumentuaren bigarren zatian, informazio xehatua biltzen duten taulak Planean zehaztutako hamahiru gobernantza-helburuetan oinarrituta daude, eta helburu horien egoera sakonean jarraitzeko aukera ematen du horrek. Atal horietan, helburu horiei dagokienez lortutako emaitza nagusien ikuspegi orokorra eskaintzen da.

2.1.1. Berdintasun-politiken plangintza EAEn


4/2005 Legeak EAEko eremuan gizonen eta emakumeen berdintasunerako planak egiteko premia arautzen du. Ezartzen duenez, *legegintzaldi bakoitzean, eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira.*

³ Honela definitu da mainstreaminga: *prozesu politikoen antolamendua, hobekuntza, garapena eta ebaluazioa, neurri politikoak hartu behar dituzten eragile guztiek genero-berdintasuna politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan txerta dezaten* (Europako Kontseilua, 1998).

Jarraibide horiek baliagarriak izango dira Eusko Jaurlaritzaren sailek, foru-aldundiek eta udalek haiekin bat etorriko diren berdintasunerako planak edo programak onartzeko eta nahitaezkotasun hori zatirik handienez kapital publikoarekin partaidetutako enpresetara zabaltzeko.

2014. urtean egindako jarraipenak erakusten duenez, berdintasuna bultzatzeko plangintza finkatuta dago Eusko Jaurlaritzaren sailetan, foru-aldundietan eta EAEko udal gehienetan (tamaina esanguratsua duten udaletan bederen)⁴, eta horixe adierazi dute eskaera horrek eraginpean hartu dituen eta ebaluazioan parte hartu duten entitateen % 80k. Gainera, beste erakunde batzuek ere badute berdintasun-plana (UPV/EHUK adibidez).

39. grafikoa. Parte hartu duten erakundeen eta planak dituzten erakundeen kopurua, erakunde motaren arabera. 2014



Identifikatutako plan guztiak aldez aurreko diagnostiko batetik abiatuta landu dira, eta erakundeen arlo guztietako teknikariek zein politikariek ia sistematikoki hartu dute parte (informazioa eman duten kasuen % 93tan).

Diseinuan izandako parte-hartzeari lotuta, erakundeen arloek planaren garapenean izan duten inplikazioa aipatu behar da, eta sistematikoa izan da Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta foru-aldundietan. Udalen kasuan, parte-hartze handixeagoa izan da honako arlo hauetan: Kultura, Euskara eta Kirolak, Gizarte Politika eta Alkatetza.

Berdintasun-planak ebaluatzeari eman zaion garrantzia (ikasteko eta planak berak hobetzeko) handi samarra izan da, aurreikuspenari dagokionez bederen. Nolanahi ere, foru-aldundietan eta Eusko Jaurlaritzan baino ez da sistematikoa izan.

⁴ Erakundeen gobernantzan berdintasunari dagokionez egindako aurrerapenak interpretatzean, kontuan hartu behar da, nolanahi ere, jarraipen honetan parte hartu duten 4.000 biztanletik beherako 16 udalerrik baliabide mugatuak dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa formalizatzeke.

Arloetan izandako parte-hartzea eta politikari eta teknikariek plangintzan izandako inplikazioa gero eta finkatuago dagoela dirudi. Ildo horretan, hobekuntzak udal-eremuan agertzen dira, eta herritarren parte-hartzea, berriz, tokiko esparruan eta, gero eta neurri handiagoan, foru-aldundietan.

Administrazio publikoetan ezarritako barneko berdintasun-planek dagokienez⁵, kapital publikoko enpresa gehienetan aplikatu dela, baina udaletan eta erakunde autonomoetan aplikazioa urria izan dela egiaztatu da 2014. urtean. Nolanahi ere, urte horretan negoziazio kolektiboaren bidez Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen I. Berdintasun Plana lantzeko Lan Plan bat onartu dela eta Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gasteizko Udalean barneko berdintasun-plan bat lantzeko prozesuari hasiera eman zaiola azpimarratu behar da.


2.1.2. Berdintasunerako administrazio-unitateak eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail bakoitzak berdintasuna sailean bertan eta erakunde autonomoetan bultzatzeko, koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko administrazio-unitate bat izango du gutxienez.

Lege horrek, halaber, foru- eta toki-administrazioak egokitze premia arautzen du, dagokion eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, koordinatu eta garatuko dituen gutxienez entitate, organo edo administrazio-unitate bat egon dadin. Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak betebeharrak hori bera ezartzen die erakunde autonomo, elkarte eta gainerako entitate publikoei.

Ondorengo grafikoan, lege-errekerimendu horren betetze-maila agertzen da, eta euskal administrazio publikoen eremuetan desberdina izan dela ikus daiteke (jarraipenean parte hartu duten erakundeen erdiek bete dute, gutxi gorabehera).

40. grafikoa. Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen eta berdintasunerako unitatea duten erakundeen kopurua. 2014




⁵ Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurrien multzo antolatu bat dira, eta enpresan edo erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuagatiko diskriminazioa desagerraraztea dute helburu.

Berdintasun-egiturak dituzten kontuan hartuta, administrazio publikoen barne-antolamenduan berdintasuna sustatzeko jardueraren txertatze-maila zein izan den jakin daiteke, eta garrantzitsua da, halaber, sustapen horretan diharduten pertsonen kopurua jakitea, egitura espezifikoetan sartuta dauden ala ez kontuan hartu gabe.

2014. urtean, erakundeek adierazi dutenez, 218 pertsonak egiten dute lan EAEn berdintasuna bultzatzeko (ebaluazioan parte hartu duen erakunde bakoitzeko bi pertsona, batez beste). Kopuru horrek hainbat egoera islatzen ditu: prestakuntza espezifiko esanguratsua, arduraldi eskusiboa eta kontratu finkoa duten berdintasun-teknikariekin hasi eta beren askotariko lan-jardueren artean funtzio hori duten, aldi baterako kontratuak dituzten eta prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonekin amaitzeraino.

Langile horien guztien herenak baino gehiago udal-eremukoak dira, eta erakunde autonomo eta entitate publikoenen antzeko balioak dituzte (Emakunde talde horretan dagoelako nagusiki).

41. grafikoa. EAEko berdintasun-langileak, erakundearen arabera. 2014




EAEn berdintasuna sustatzen duten langile horien artean, bi heren inguru berdintasuna bultzatzen diharduten teknikaritzat har ditzakegu. Eusko Jaurjaritzan, foru-aldundietan eta udaletan berdintasunaren alde dihardutenen ia guztiak dira, baina proportzioa txikiagoa da erakunde autonomoetan edo kapital publikoko enpresetan.


Identifikatutako langile guztien erdiek 150 ordutik gorako prestakuntza espezifiko dute berdintasunean, eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten hamar pertsonetatik, ia bederatzi emakumeak dira. Funtzio horiek betetzen dituzten gizonen artean, gehiago dira kapital publikoko enpresetan dihardutenak (berdintasuna bultzatzen diharduten hiru pertsonetatik, bat gizona da enpresa horietan).

Ondorengo grafikoek agerian uzten dute erakundeetan berdintasuna sustatzen duten langileen aniztasuna.

42. grafikoa. Berdintasun-langileen guztizkoa eta prestakuntza esanguratsua dutenak, erakundeen arabera. 2014



43. grafikoa. Berdintasun-langileen guztizkoa eta erabateko arduraldikoak, erakundeen arabera. 2014



Azterketa honetan azpimarratu beharra dago, halaber, berdintasuna sustatzen baino ez diharduten pertsonen herenek lanaldi partzialak dituztela eta udaletan formula hori lanaldi osoa baino ohikoagoa dela. Lanaldi mota guztietatik, ohikoena da 2014an identifikatutako langile guztien artean (117 pertsona lanaldi partzialean eta 101 lanaldi osoan).

Berdintasun-arloko teknikarien plaza berriei dagokienez, 15 prozesu identifikatu dira 2014an (adierazitako 806etatik). Horien artean, 11k 150 orduko prestakuntza behar zuten gutxienez berdintasunean.


2.1.3. Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegiaren txertatze-maila EAEko aurrekontuetan

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko administrazioek, foru-administrazioek eta toki-administrazioek lege horretan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta neurriak hartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitu eta zehaztuko dituzte urtean behin beren aurrekontuetan.

2014. urtean, 69 erakundek esleitu dute aurrekontu espezifiko bat berdintasun-politikak sustatzeko; zehazki, 22 milioitik gorako zenbatekoa esleitu dute guztiek (22.347.528 €). Betearazitako aurrekontua handiagoa izan da (35.433.275 €). Parte hartu duten entitate guztiek erantzun ez izanaren (eta zenbait erakundek, eta, bereziki, tamaina handi samarreko zenbait udalek ebaluazioan parte hartu ez izanaren) ondoriozko mugen barruan, aurrekontu horiek esleitutako guztizkoaren % 0,09 eta euskal erakundeek 2014an betearazitako guztizkoaren % 0,1 izan direla esan daiteke.

Aurrekontu horien banaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren sailek esleitu dute zatirik handiena, eta, haien atzetik, foru-aldundiek eta udalerriek. Erakunde autonomoen artean, Emakunderen aurrekontu handia azpimarratu behar da.


44. grafikoa. EAEko berdintasun-aurrekontua, erakundeen arabera (mila €-tan). 2014



Betearazitako aurrekontuak hiru multzotan banakatu dira. Ildo horretan, erakundeen berdintasun-planetan eta berdintasun-programetan sartu diren hartu da kontuan, berdintasun-unitateetara bideratzeko aukera identifikatu da (eta bereiz identifikatu dira berdintasun-unitateko langileen kostua eta berdintasun-jarduerak egiteko dagoen aurrekontua), eta egituretara eta zerbitzuetara bideratutakoa ere zenbatu da. Zenbait erakundek langileen kostua plan edo programetan sartzen dutenez gero, banakapen hori gutxi gorabeherakoa da, eta gainjartze batzuk ere baditu. Hori dela-eta, betearazitako guztizkoa hartu da erreferentzia gisa beti (baita dokumentuaren bigarren zatiko tauletan ere).

Ikus daitekeenez, *plan eta programen eta egitura eta zerbitzuen* partidak dira esleipenik handiena dutenak. Berdintasun-unitateetako langileen kostuak unitate horien aurrekontuaren % 38 inguru dira. Ondorengo grafikoan, kapitulu bakoitzean identifikatutako zenbatekoak daude islatuta.

45. grafikoa. Aurrekontuak, banakatuta (milakoetan), 2014



Bereziki azpimarratu beharra dago indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretak aurrekontu horien zati esanguratsu bat hartzen duela. Eusko Jaurlaritzaren sailen kasuan, zehazki, guztizkoaren % 72 da, eta foru-aldundietan ere oso proportzio handia da. Oro har, toki-erakundeek, emakumeen elkarteek edo beste entitate batzuek berdintasuna bultzatzeko jarduerak egiteko diru-laguntzek eta laguntzek aurrekontuen zati garrantzitsu bat hartzen dute.

2.1.4. Euskal administrazioetan arauk generoaren arabera duten eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioak txertatzea


4/2005 Legearen 19. artikulua ezartzen duenez, nahitaezkoa da arau guztiek berdintasunari dagokionez izan dezaketen eragina ebaluatzea, lantzen hasi aurretik.

Tresna hori estrategikoa da. Izan ere, era prebentiboan jarduteko aukera ematen du, arauan edo egintza administratiboan proiektatutako jarduerak emakumeen eta gizonen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna lortzeko ondorio positiboak edo negatiboak izan ditzakeen balioesten baitu.

Azken urteetan, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzan bultzatuta, hainbat ekimen egin dira ebaluazio horren aplikazioa sustatzeko.

2014an egindako jarraipenaren emaitzek agerian utzi dute ebaluazio horri tinko ezarri dela Eusko Jaurlaritzaren sailetan, gero eta neurri handiagoan erabiltzen dela foru-aldundietan, eta erabilera oraindik urria dela udaletan. Gainera, hainbat jarraibide onartu dira berdintasuna Eusko Jaurlaritzaren, 2 foru-aldundien eta 3 udalen arauetan, eta beste 19 erakunde gehiago horrelako jarraibideak lantzeko fasean daude. Ebaluazio horien erdiek baino gehiagok arauetan berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea eragin dute.

46. grafikoa. Eraginari buruzko txostenen kopurua eta berdintasun-neurriak txertatzea eragiten dutenen kopurua, erakundeen arabera. 2014




2.1.5. Berdintasun-politiketan izandako parte-hartzea

Herritarren parte-hartzea gero eta neurri handiagoan erabiltzen ari da gobernantza hobetzeko eta administrazioen gardentasun eta hurbiltasunari lotutako eskariei erantzuteko tresna gisa.

Berdintasun-politiken eremuan ere joera hori ikus daiteke. 2014. urtean, herritarrek berdintasunean parte hartzeko 41 kontseilu edo organo identifikatu dira. Kopuru handiago batek (berdintasun-arloko espezifikoak ez badira ere) berdintasuna txertatzen dute beren funtzio eta helburuen artean, eta berdintasuna sustatzen duten entitateak txertatzen dituzte beren osaeran (askok bi baldintzak betetzen dituzte). Organo horietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituen parte-hartzea bermatzeari dagokionez, esan beharra dago ez dela hain ohikoa.

47. grafikoa. Berdintasuneko espezifikoak diren eta funtzioetan edo osaeran genero-ikuspegia sartu duten organo eta kontseiluen guztizkoa. 2014



2.1.6. Berdintasun-arloko prestakuntza administrazio publikoetan


4/2005 Legeak 17. artikuluan ezartzen duenez, euskal erakundeek langile guztiak prestatu behar dituzte, teknikariek zein ardura politikoa duten pertsonak gutxienez genero-hesi eta desberdintasun-esparru nagusiei buruzko oinarritzak eduki ditzaten eta berdintasuna arlo eta jarduera guztietan zeharka bultzatu ahal izan dezaten.

Arestian adierazi dugunez, euskal administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen lan egiten duten pertsonen erdiek prestakuntza esanguratsua dute arlo horretan (150 ordu baino gehiago). Pertsona horiek botere publikoak eraldatzea eta genero-ikuspegia administrazioaren arlo eta jarduera guztietan txertatzea helburu duten teknikari espezializatuen taldea osatzen dute.

Pertsona horien jarduera arrakastatsua izan dadin, beharrezkoa da, gainera, administrazio guztiek emakumeen eta gizonen desberdintasunei buruzko oinarritzko prestakuntza/sentsibilizazioa edukitzea, eta, zenbait kasutan, prestakuntza espezializatu sektoriala, beren jarduera zehatzean (kontratazioa, arau-jarduera eta abar) berdintasunaren erronkei aurre egiteko.

EAEko administrazio publikoek adierazi dutenez, administrazio horietan lan egiten duten 2.671 pertsonak jaso dute berdintasunaren arloko prestakuntza motaren bat 2014. urtean⁶. Pertsona horietako gehienak emakumeak dira, prestakuntzan oro har duten parte-hartzean baino proportzio nabarmen handiagoan⁷. Administrazio publikoetan berdintasun-arloko prestakuntzan parte hartzen dutenen talde nagusia teknikariena da, eta arduradun politikoak urte horretan prestatutako pertsona guztien % 10 inguru dira.


48. grafikoa. Euskal administrazioetan prestakuntzan (orokorrean eta berdintasun-arlokoan) parte hartu dutenak. 2014




⁶ Gainera, enplegu publikoari lotutako sarrera, hornidura eta sustapeneko hautaketa-prozesuen % 16tan balioetsi dira generoaren arloko merituak eta/edo prestakuntza, eta prozesu horien % 36tan, berdinketa hausteko klausulak txertatu dira % 40 baino gutxiago diren gorputz, eskala, maila eta kategorietan.

⁷ Txostenaren helburuari begira, berdintasun-arloko espezifikoak ez dena, baina prestakuntza sektoriala, espezifikoak eta zeharkakoa eskaintzen duena da prestakuntza orokorra.

49. grafikoa. Administrazio publikoetan prestakuntza orokorrean eta berdintasun-arlokoan parte hartu duten emakumeak eta gizonak. 2014



50. Grafikoa. Berdintasunean prestatu diren pertsonen banaketa, lanbide-kategorien arabera. 2014




2.1.7. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak bi neurri ezarri ditu arlo horretan: ahal denean genero-ikuspegia kontratuak esleitzeko irizpide gisa txertatzea (20. artikulua) eta entitate edo pertsona esleipendunak bere lana egitean gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra.

Azken urteotan, administrazioen kontratazio, hitzarmen, laguntza eta diru-laguntzetan berdintasun-irizpideak sartu dira pixkanaka, baina oraindik ez da jarrera orokorra. Irizpide horien aplikazioa sustatzeko, prestakuntza-mintegiak eta prestakuntza-ekintzak bultzatu dira, eta jarraibideak, aginduak, arauak eta abar onartzearen bidez sistematikoki txertatzeko ahaleginak egin dira. Prozesu horiek ebaluazioan parte hartu duten erakundeek % 38k egin ditu, edota egiten ari da.

Ondorengo grafikoan, irizpide horiek 2014an euskal erakundeetan izan duten txertatze-maila agertzen da⁸.

51. grafikoa. Berdintasun-irizpideen txertatze-maila kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan. 2014




2.1.8. Beste berdintasun-helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren eremuan

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikulua ezartzen duenez, euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan. Helburu hori lortzeko, berdintasun-politiken ardura (maila politiko eta teknikoan) duten pertsonak eta beste politika sektorial eta zeharkako batzuen arduradunak elkarrekin antolatzea eta politika publikoen plangintzan eta betearaztean koordinatuta jardutea sustatzen du VI. Planak.

Horretarako, berdintasun-langileek plan sektorial horiek lantzen eta ezartzen parte hartzeko eta plangintzan genero-ikuspegia diseinuari dagokionez (emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen diagnostiko eta azterketak, eta berdintasunari lotutako helburuak edo berdintasunaren aldeko neurriak) zein emaitzen ebaluazioari dagokionez (jarraipen- eta ebaluazio-sisteman txertatutako genero-adierazleak) txertatzeko ahaleginak egingo dira.


⁸ Gainera, partzuergo batek berdintasun-irizpiderik gabeko 4.410 kontratu identifikatu ditu 2014an (dokumentuaren bigarren zatiko tauletan islatuta daude).

52. grafikoa. Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2014



Administrazio publikoetan berdintasunaren zeharkakotasuna bultzatzeko logika horren barruan, garrantzitsua da berdintasun-unitateek eta berdintasun-langileek koordinazio-egituretan (berdintasunerako espezifikoei zein espezifikoak ez direnetan) duten parte-hartzearen egoera ezagutzea⁹.

53. grafikoa. Berdintasun-unitateen eta berdintasun-langileen parte-hartzea beren erakundeak koordinatzeko egitura orokorrean



4/2005 Legearen 16. artikulua berretsi egiten du berdintasun-politikek gizarte-errealitatearen arlo guztietan berdintasunak eta desberdintasunak duten egoerari buruzko azterketa sendo eta eguneratuetan oinarrituta egon behar dutela, eta, horretarako, administrazioaren estatistika eta azterlan guztietan genero-ikuspegia sartzea eta emakumeek eta gizonek hainbat dimentsio sozial eta pertsonaletan duten egoera eta izan duten bilakaera identifikatzeko azterketak bultzatzea proposatzen du.


⁹ Berdintasunerako espezifikoak ez diren egituren kasuan, berdintasun-unitateak edo berdintasun-teknikariak bat baino gehiagotan parte har dezake. Dokumentu honetan, parte-hartzearen kopurua jaso dugu. Txostenaren bigarren ataleko taulek informazio zehatzagoa ematen dute.

lido horretan, adierazi beharra dago administrazioak beren azterketa eta estatistiketan genero-ikuspegia txertatzeko egiten ari diren ahaleginari dagokionez egoera desberdina dela, eta zailtasunak dituztela sortzen eta zabaltzen duten informazio guztia genero-ikuspegi batetik objektiboki balioesteko garaian. Hori dela-eta, parte hartu duten lau erakundeetatik batek baino ez du eman zenbait alderdiren (sexu-aldagaia estatistiketan sartzeko aukera, emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa bereizia, genero-hesiaren identifikazioa eta azterketa eta abar) txertatze sistematiko edo puntualaren mailari buruzko informaziorik.

Muga horiek kontuan hartuta, 18 erakundek adierazi dute sexu-aldagaia sistematikoki txertatzen dela, eta beste 7k, berriz, puntualki txertatzen dela. Gainerako alderdietan, sistematizazioa txikiagoa izan da. Gainera, emakumeen eta gizonen datu bereziak dituzten 372 prentsa-ohar eta emakumeen egoerari buruzko 25 azterlan espezifiko identifikatu dira.

4/2005 Legearen 20. artikulua identifikatzen dituen eremuetan emakume eta gizonen ordezkaritza orekatuari dagokionez, adierazi beharra dago oreka hori enplegu publikoari lotutako sarrera, hornidura eta sustapenerako epaimahaien kasuan betetzen dela¹⁰, eta neurri handian betetzen dela (sistematikoki ez bada ere) sariak emateko, kultura-ondasunak eskuratzeko eta antzeko eginkizunetarako eratutako epaimahaietan. Urriagoa da, garatzeko prozesuan badago ere, sexu-ordezkaritza orekatua lortzeko klausulen txertatze-maila.

54. grafikoa. Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua epaimahaietan eta abar. 2014




¹⁰ 2014. urtean ordezkaritza orekatu hori lortu ez duten kasu gehienetan 3 pertsona zeuden, eta, beraz, ezinezkoa izan da emakumeen eta gizonen gutxienez % 40ko ordezkaritza hori lortzea.

2.2. Jarraipenaren emaitzak esku-hartzearen ardatzetan

2014an berdintasun-politiken jarraipenean parte hartu duten erakundeek informatutako 909 jardunak botere publikoek azken urteotan informatutakoen batez bestekoaren inguruan kokatu dira, eta aldaketa txikiak izan dira administrazio-eremu bakoitzean.

55. grafikoa. EAEn egindako berdintasun-jardunen kopurua, erakundeen arabera. 2014



Berdintasuna bultzatzeko ekintzen erdiak gutxi gorabehera, aurreko urtean egindako beste batzuen jarraipenak izan dira. Nolanahi ere, ekintzen kopuruaren azterketa ez da oso argigarria berdintasunaren alde diharduten erakundeen jarduerari dagokionez, jarduera horren norainokoa eta edukia askotarikoa baita.

2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak

Berdintasuna bultzatzen duten jardunen helburuak aztertzeke garaian, kontuan hartu behar da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak gizartean balioak aldatzea ezartzen duela lehentasun gisa, eredu androzentriko batetik berdintasun-eredu batera igarotzen laguntzeko.


Helburu horren arabera, sentsibilizazioa, prestakuntza eta ahalduentzea lortzeko ekintzak bultzatu behar dira, eta horiek izan dira, hain zuzen ere, botere publikoek 2014an egindako ekintza nagusiak kopuruari dagokionez.

Helburu horrekin batera, esku-hartze gehienek izan dituzten lehentasunezko jomuga gisa, emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea azpimarratu beharra dago. Izan ere, jarraipen honetan identifikatutako aurrekontuen zati esanguratsu bat bideratu da gaitz horren aurka.

Emakumeak eta gizonak pertsona guztien zaintzaz berdintasun-baldintzetan arduratuko diren eta berdintasun-baldintzetan parte hartuko duten gizarte batean produkzio-alderdiaren eta ugalketa-alderdiaren gizarte-errekonoizimendu bera eta alderdi horien arteko berdintasunezko banaketa lortzea izan da helburua 2014an informatutako hamar ekintzatik bat baino gehiagotan.

Proportzio txikiagoan, erabaki- eta eragin-eremuetan emakumeen eta gizonen ordezkari-orekatua lortzea izan da helburua.

56. grafikoa. Helburu politiko jakin bat lortzeko jardunen kopurua. 2014




2.2.2. Gaiak

Administrazio publikoek berdintasuna bultzatzeko garatutako jardunen oinarri diren arlo edo gai nagusiak balioestean ikus daitekeenez, kopuru esanguratsu bat hezkuntza-eremukoa da, baina aztertutako arlo guztietan egin dira esku-hartzeak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

Udalen, mankomunitate eta partzuergoen eta *beste erakunde batzuen* esku-hartze gehienak hezkuntzakoak izan dira (azken bi tipologia horietan, Haurreskolak eta UPV/EHU daude). Foru-aldundietan, berriz, gizarte-politikei lotutako jardunak izan dira gehiago. Eusko Jaurlaritzaren sailen kasuan, azpimarratu beharra dago osasunean eta kontsumoan oinarritutako jardunen kopuru handia, eta erakunde autonomoetan, berriz, enpleguari lotutako esku-hartzeen kopurua da nabarmendu beharrekoa (Lanbideko jardunak barnean hartuta). Azkenik, kapital publikoko enpresetan jarduerak urriak izan dira, eta ekonomiaren testuinguruan burutu dira.

57. grafikoa. Gai jakin bat garatzen duten jardunen kopurua. 2014



2.2.3. Esku-hartze mota

Administrazio publikoek bultzatzen dituzten esku-hartze motak aztertzean, kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, zenbaitetan jardun berak esku-hartze mota bat baino gehiago har dezakeela eraginpean. Ildo horretan, ohikoa da prestakuntza-ekintza edota informazio- eta jakintza-ekintza batekin batera emakumeen eta gizonen berdintasunaren alderdien inguruko sentsibilizazioa eta alderdi horien zabalkundea kontuan hartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, eta gizartean balio-aldaketa bat sustatzeko helburua esku-hartze kopuru handi baten oinarri izan denez gero, *sentsibilizazioaren, zabalkundearen eta komunikazioaren* esparruko ekintzak izan dira esku-hartze motarik ohikoenak 2014an, *informazio, jakintza eta azterketaren* esparruko ekintzekin batera.

Halaber, *prestakuntza* (herritarrei zuzendutakoa –ohikoenak– zein zerbitzu publikoetako profesionalena) ohiko jardun mota da, *esku-hartze ekonomikoak* (diru-laguntzak, laguntzak eta abar) bezalaxe. Azken horien kasuan, adierazi beharra dago soilik berdintasuna bultzatzera bideratutako laguntzak ez ezik, eskaerak balioesteko irizpideetan berdintasuna txertatzen duten jardunetarako laguntzak ere badirela¹¹.

Urriagoa bada ere, *zerbitzu edo ekipamenduen sorkuntza eta kudeaketa* oso esku-hartze mota esanguratsua da, eta norainoko handikoa gainera, genero-indarkeriaren biktimak diren edota egoera bereziki ahulean dauden emakumeentzako laguntza juridikoa, psikosoziala, harrera-laguntza eta abar jasotzen baititu zerbitzu eta programen artean.

¹¹ Zenbait kasutan, zuzenean berdintasuna bultzatzera bideratutako laguntzak dira (emakumeen elkarlanean diru-laguntzak eta abar). Beste batzuetan, berriz, atal espezifikoak txertatzen dira (emakumeek sustatutako landa-eremuko ekintzailetza-proiektuak bereziki kontuan hartzea, adibidez), eskaeran genero-ikuspegia txertatu den balioesten da eta abar.

58. grafikoa. Jardun kopurua, esku-hartze motaren arabera. 2014




Esku-hartze horietako batzuen (prestakuntza, sentsibilizazioa eta abar) norainokoaren balioespena errazteko, tipologia horiei buruzko informazio xehatuagoa emango dugu.

2.2.3.1. Prestakuntza


EAEko administrazio publikoek berdintasunaren alde bultzatu dituzten prestakuntza-ekintzetan, 17.045 pertsonak hartu dute parte 2014. urtean. Udalek eta erakunde autonomoek prestakuntza horren zati esanguratsu bat bultzatu dute.

59. grafikoa. EAEn berdintasun-arloko prestakuntza jaso duten pertsonak (herritarrek), erakundearen arabera. 2014




Prestakuntza horren helburu nagusia herritarrengan berdintasunari buruzko jakintza bultzatzea da. Dena dela, bostetik batek parte-hartzaileen lanbide-jardueran aplikatzeko hobetu dute berdintasun-arloko trebakuntza (antzeko ekintza kopuru batean, ziurtagiria eman da).

60. grafikoa. Herritarren prestakuntzarako jardunen kopurua, helburuen arabera. 2014




